



Hiztegitxo

Hobeto irakurtzen laguntzeko




abegikorra errespetuzkoa, abegitsua	Lucasek irribarre abegikorra eskaini zion eta neskak, estatua-aingeruaren aurpegiera berberaz, antzeko irribarreia saiatu zuen...	(66)
aditu ulertu, endelegatu, konprenitu	Gutxienez ehun eta hirurogeita zazpi urte izan behar zituen emakume batek aditu ez zuen aholku bat eman zion...	(25)
ahakar egin deiar egin, errieta egin	Autoek bozinaka ekin zioten, ahakar egin zion gizon batek espaloitik, udaltzain bat zetorren auzotik.	(42)
ahal (+ -ko) desio adierazpena (<i>ojalá</i>)	— Jubilatuko ahal dute gizon hori kexatu zen Lucas.	(70)
ahalik eta lasterren albait lasterren, lehenbailehen	Neba handik ahalik eta lasterren atera behar zuela otu zitzaion, ospitaleak arima txikitzen ziola.	(13)
ahapeka isilean hitz eginda	—Kabiarra jaten eta etxera itzuli nahi? Aprobetxatu medikuek bota arte -ahapeka azken hori.	(14)
ahituta akituta, oso nekatuta	Ahituta zegoen, lanetik, eta lausotuta ikusten zuen gaua.	(68)
ahotsestuka estu eta larri, arnasestuka	Banoa -desenkusatu zen gaztea, inor baino urduriago, ahotsestuka .	(30)
ahuldu makaldu, bigundu	...edonork baitaki horrelako disgustuek betileak ahultzen dituztela.	(111)
aiene intziria, auhena, erosta	Biak sartu ziren belar artera eta biek igurtzi zituzten zapatak belar hezeen kontra, lanturu, aiene eta barre lizunak eginez...	(63)
aldaka gerri albo	Aldaka apurtuta zekarren, eta gripearen lehenengo birusak.	(105)
aldikada denboraldia	Berrogeitaka urte zituenean gaixorik egon zela osaba aldikada batez, gripea-edo, eta ohetik kalenturaz altxatu zen batean su eman ziola bagoiari.	(136)
aldra bizidunen multzo handia	Telebistan zientzialari aldra agertu zen (zientzialariak aldratan neurtuko balira bezala).	(110)
altzoan magalean, sabel parean	Mariak altzoan jarri zituen erretratu guztiak; zuri-beltzean gehienak, Lucas eta Maria ume gazteak zirenekoak.	(135)
amore eman etsi, errenditu	Bere burua setiatuta ikusi zuenean, txokolatea eskaini zion Mariak Lucasi, amore emateko eta hilerrira joateko: txokolatearen sobornoa.	(60)
antjugarri nazkagarria, okaztagarria	Umetan ez nuen pentsatzen, ondo bainekien ez nituela misterioak ulertuko, arrebak pazientzia antjugarriz azaltzen bazizkidan ere.	(54)
antzeman igarri	Irribarretsu ari zen Marcos, eta Maria konturatu zen etxe hartako filosofiari arin antzeman ziola, eta poztu zen...	(33)
ardura kezka	Ardura handirik gabe aitortu zion Mariak Marcosi, jakina, noizean behin ahaztu egiten zuela Lucasen medizina, existitzen zenik ere.	(132)
arean apur bat	Lasaitu egin zen Roma, arean .	(81)
aroztegi zurgindegia, zur lantegia	Lucasek ez zuen ospitalea merezi. Lucasek umorea behar zuen eta aroztegiko lana, egur usaina.	(14)
arranguratu arduratu, kezkatu, larritu	Eta Maria arranguratu zen, eta otu zitzaion hura zela egunean atzekoz aurrera egin zuen laugarren gauza...	(130)
arrapaladan arineketan, ziztu bizian	Eta ordu erdia betetzen zenean, arrapaladan jaisten ziren kalera eta ohera joaten ziren edo jatetxe italiar atera.	(148)
artean orduan, oraindik (lehenaldian)	Artean jakin ere ez nekien zer ziren sitsak.	(19)
artega urduri, larri	Mariak, artega , hara-hona, atzera-aurrera begiratu zuen baina Lucasen arrastorik ez.	(67)
artiletan artile artean, artilez inguratutik	Eskas egiten zuen lo, eta urri, artiletan bildutako hartz bat balitz bezala.	(126)




aspertuta gogait eginda	— Aspertuta nauka zuen nebak —esan zuen medikuak.	(15)
atezuan tentsioan, larri	Atezuan sartu zen enpresako bulegoan.	(103)
atondu antolatu, ordenatu	...eta hiru igande eman zituela hura garbitzen eta atontzen , eta han ibiltzen zirela jolasean auzoko ume guztiak.	(136)
atzeko aurrera alderantziz, aldrebes	Eta Maria arranguratu zen, eta otu zitzaion hura zela egunean atzeko aurrera egin zuen laugarren gauza...	(130)
atzera berriro, berriz	...trenak atzera garbitzera ekartzen zituztenean, baina beste batzuk ez; euria ziurrenik.	(86)
aurkitzekotan aurkituko ba(dut)	Argi dago bilatzen ari naizena une berezietan aurkituko dudala —inoiz aurkitzekotan — eta herriko trena arruntzia da, ezagunegia.	(75)
aurreneko lehenengoz, estreinakoz	—Zure adina izango nuen aurreneko ikusi nuenean.	(16)
aztarrika induskatuz, lurrean zuloa eginez	Aztarrika hasi zen Maria poltsa erraldoi eta marroian.	(30)
aztoratu urduritu, artega jarri	—Ez, hori ez dakit — aztoratu zen neska.	(17)
azukrezkoak eztiak, goxo-goxoak	Azukrezkoak izaten dira begiradarik gehienak ospitaleetan.	(14)
bailitzan balitz bezala	Liburuak ez ezik azalpenak ere biltzen genituen (...) gaurko idazle oro barregarri utziz, paduretan itotzen ari den angorako katua bailitzan .	(35)
balantzaka alderoka, artez egon ezinik	Gandirengana heldu eta balantzaka hasi zen Aita Santua, larriaren larriaz, jausteko zorian jarri arte.	(70)
baretu lasaitu	Baina berehala baretzen gara eta salbuespen horiek ere (Koadro Bukaezina, Marcos) sistematizatu egiten ditugu...	(100)
barik beharrean, —ren orde	Baina zuhaitzen inguruan, mendian, baso txikian, herriko sargoria barik , behe-lainoa zegoen, fresko eta berde.	(86)
beharbada agian, apika, igual, ausaz	—Ez dut uste, Lucas, bihar, etzi, beharbada .	(13)
behe-laino lainabera	Baina zuhaitzen inguruan, mendian, baso txikian, herriko sargoria barik, behe-lainoa zegoen, fresko eta berde.	(86)
behialako aspaldiko, lehenagoko	Beraz, begi grisak kliskateko batez itxi eta begi urdinez ikusi zituen, etxeen orde, behialako futbol zelaia eta Juan, Matias...	(27)
behin harrezkero handik aurrera, handik gora	Behin harrezkero , berrehunetik berrogeita bost aukeratu zituzten lanerako, elkarrizketa bidez...	(102)
behinen garrantzitsuena, aipagarriena	Ondoren Bere Kotxearen marka, modeloa eta ezaugarri behinenen zerrenda zehatza eman zion, ahalmen analitiko txalogarritz.	(43)
behingoz berrehala (kontxo!, joé!)	...bekain keinuz eskatu zion kontatzen hasteko eta, berririk txarrena izanda ere, botatzeko behingoz , jakingo zuela eusten...	(15)
bekainez esan bekainen keinuarekin adierazi	...eta kontu hura amaitzen zenean, zerbait eskatuz gero, bere eskuetan balego, egingo ziola. Eta hori guztia bekainez esan zion.	(15)
beratu bigundu	Beratu egiten zaie jenioa hiltzen direnei.	(107)
berbetan hizketan	...eta zure gainean eseriko da eta berbetan egongo gara iluntzera arte, eta ilundu eta gero ere bai...	(11)
bermatu apoiatu / ziurtatu	Bizikleta zuhaitz batean bermatu eta irribarre exageratua egin zion Lucasi, baina ez zuen hitzik esan bankuan eseri arte...	(107)
berrogeitaka urte berrogeitik gora urte	Berrogeitaka urte zituenean gaixorik egon zela osaba aldikada batez, gripea-edo, eta ohetik kalenturaz altxatu zen batean su eman ziola bagoiari.	(136)




bihurtu egin, bilakatu	Lucasi begi grisak urtu ahala itsaso bihurtu zitzaizkion eta urdinu.	(30)
bildu inguratu, etorri	Hemen zegoenetan tailerrera biltzen zen ni baino sarriago.	(21)
birgeriak gauza itzelak, finak eta ikusgarri	Birgeriak egin behar izan zituen atea zabaltzeko.	(105)
bistosoa itxura ederrekoa, ikusgarria	Dortoka bat erosiko duzue, bistosoa eta begi berdekoa.	(117)
blai busti-bustirik	Izerditan blai eta dirurik gabe.	(27)
braustakoan kolpean	Atea braustakoan ireki zen.	(17)
burla egiten iseka egin, trufatu	...Tourmalet-a <i>tête de la course</i> -n jaisten burua apurtu eta zuzendariaren kotxean sartzen zirenak, telebistako kamarek burla egiten zietenak.	(46)
damu erru sentimendua	Arratsalde osoan egon zen damuari bueltak ematen, eztabaidari bueltak ematen.	(128)
definituago zehatzago, xehetasunez	...etxeko egongelara sartu orduko ohartu zen Maria argi hura etxe barruraino sartzen zela eta etxean ere hobeto ikusten zirela gauzak, definituago .	(112)
deliberatu erabaki	...ekin zion neskak; ospitalera etortzea, agian, zuzenbide karrera egitea deliberatu zuenetik hartutako erabakirik txarrena zela pentsatuz.	(16)
demiurgo munduaren sortzailea (Fil.)	...mundutik erretiratzeko aproba egiten zuen; baina berehala jartzen zituen berriro zeuden lekuan eta berriro kendu eta berriro jarri. Marcos demiurgo .	(125)
desenkusatu barkamena eskatu	Banoa desenkusatu zen gaztea, inor baino urduriago, ahotsestuka.	(30)
deskolokatu lekuz kanpo utzi	Egia esan, deskolokatu egiten nau tipo horrek, Marcosek.	(114)
dilindan zintzilik, kulunka mugituz	Mariak, bitartean, erizainari deitu eta bien artean eseri zuten ohean, hankak dilindan .	(20)
doministikuka doministiku egiten, <i>atxus</i> egiten	Doministikuka hasi zenean heldu zen Marcos.	(104)
efusibo beroa, piztua	Ondoren, komentario efusibo hori ilustratzeko, komenigarria izaten da hiruzpalau musikari beltzen izenak aipatzea, hurrenez hurren.	(140)
elgorri gaixotasun mota, garau gorriak	"Limoiak ilberri potoloak dira" esan nion mailukizkoa eskatu nuenean. "Eta mailukiak sastraken elgorria " berak.	(17)
emagaldue meretriza, prostituta	Eta errepublikaz hitz egin zuten eta neskez eta xanpainaz eta emagaldue eta lehengo diputatuez eta bezperako galernaz...	(108)
eraman jasan	Haserre egongo zen Maria, arrazoi osoz; hitz egin gabe egon beharko zuten, astebete igual. Eta hori ezin zuen eraman .	(129)
erantzi biluztu, arropa kendu	...eskuineko galtzerdia janzten ziotenean, ezkerrekoa erantzten zuen Lucasek...	(20)
ernatu piztu, sortu	Bizikletaz ibiltzeko gogo bizia ernatu zitzaion orduan, Romarekin, Austrian, Tiroletik.	(104)
erreparatu begiratu, aditu	Gazte talde bat zegoen Lucasen ondoan. Ez zioten itsasoari erreparatzen .	(107)
errieta egin gogor egin, agiraka egin	Egurrezko banku batera aldatu zen, lagunek errieta egingo ziotela ondo zekien arren.	(107)
eskasa laburra, motza	Eta Lucas bakarrik; erizainaren bisita eskasa goiz osoan eta sueroari, aulkiari eta Anasi begira.	(12)
eskudela eskulekua, baranda	Eskudelari eskaladore atzamarrez oratuta, gora egin zuen.	(29)



estekatu zotz batean sartu	Sitsak harrapatzen ditu, hil eta kortxo batean estekatu (bakoitzaren azpian izena idazten du...).	(23)
estimatu aintzat hartu, esker onez hartu	..."gurekin jolastu" jarraitu zuen besteak. Estimatzen zuela esan zien baina lesionatuta zegoela...	(26)
estreinakoz lehen aldiz, lehenengoz	Orduan erreparatu zion estreinakoz Lucasi.	(112)
ezen bada (lotura hitza)	Ezen antzeko zerbait esan baitzuen Patrick McKenna-k 1926an idatzi zuen liburu handian (eta bakarrean)...	(140)
ezpada baizik eta	Gero berde bat pintatu zuen, pintzelada horiz; ez nik eskatu niolako, ezpada tren-txartel bat sobran genuelako.	(152)
gainerakoak besteak	Hori esan zuen Juanek edo hori esan zuela uste izan zuten, behintzat, gainerakoek .	(108)
gobernatu manejatzeko, kontrolatzeko	Egundo ez zuen euritakoa gobernatzeko trebeziarik izan.	(44)
goizalba goiznabarra, goizaldea	Mariak, ostera, goizalba baino ez zuen gogoan ohean.	(126)
goseak hilik egon oso gose izan, gosez amorratuta	Eta gero esaten du goseak hilik egon behar duela sofak, ni bezalako gauza mingots bat irensteko.	(52)
gurtu gorazarre egin, adeitsu makurtu	Ezer ahoratu aurretik, igurtzi egiten zuten; ez janaria gurtzeko ohitura zeukalako, ezpada zikinkeria tona batzuk kentzeko.	(146)
haatik hala ere, ordea, baina'	Gerta liteke, haatik , azalpena bera padura baino ez izatea edo desertu total bat.	(35)
harrabots zaratotsa, burrunba, astrapala	Sabaia jotzen hasi zen bastoiaz, urratu beharrean, goikoen arreta bereganatzeko: hura zela harrabotsa , isiltzeko behingoz.	(84)
hats kiratsa, sunda zantarra	...eta orduan ohartu zen eta barreka hasi ziren biak: ez Lucasen zapaten hatsagatik , jakina, baizik eta txakur-ongarriak zikindutako oinetakoak...	(62)
herdoildu ugertu, oxidatu	Herriko iturrikerik erabiliena herdoildu zuen udal iturginen soseguak.	(101)
igual agian, beharbada, apika	Haserre egongo zen Maria, arrazoi osoz; hitz egin gabe egon beharko zuten, astebete igual . Eta hori ezin zuen eraman.	(128)
ilberri ilargia erabat argiturik dagoenea	"Limoiak ilberri potoloak dira" esan nion mailukizkoa eskatu nuenean. "Eta mailukiak sastraken elgorria" berak.	(16)
ilustratu adibideekin hornitu	Ondoren, komentario efusibo hori ilustratzeko , komenigarria izaten da hiruzpalau musikari beltzen izenak aipatzea, hurrenez hurren.	(140)
inkesta ikerketa, azterketa	Lucasek A! erantzun eta atzera luzatu zuen pausoa: inkesta jarraitu beharra zegoen.	(67)
iragarri anuntziatu	"Freskatu egingo du gero, Rosa" iragartzen zion Mariari, "ez dut uste" kentzen zion Mariak gabardina.	(44)
jolasean olgetan	Jolasean hasi zen Maria: — Hemen espedizio burua kanpamentu nagusikoei...	(12)
Josafat azken eguneko judizio lekua	Eta Josafat -erako bezperak bertan harrapatuko zituela ematen zuen.	(109)
kalentura sukarra	Berrogeitaka urte zituenean gaixorik egon zela osaba aldikada batez, gripea-edo, eta ohetik kalenturaz altxatu zen batean su eman ziola bagoiari.	(136)
kar-kar ja-ja	Kar-kar egin zuen esatariak barre.	(94)
kenduta izan ezean, izan ezik	...ez zidaten ziurtasun berririk eman, inork ez baitaki ezer askorik ezeri buruz (futbol-entrenadoreak eta tailerretako mekanikoak kenduta).	(54)
kliskateko ixteko kolpetxoak	Beraz, begi grisak kliskateko batez itxi eta begi urdinez ikusi zituen, etxeen ordeaz, behialako futbol zelaia eta Juan, Matias...	(27)



koipezto koipea duena, zikina, saskela	Guztia zekien, hala ere, goiko pisuko auzokoez: ospitalean egon zirenekoa, Maria eskaileretatik jausi zenekoa, gazte koipezto hori etxean hartu zutenekoa.	(83)
konturatu ohartu, jabetu	Ospitaleko hormek berde jarraitzen zutela konturatu zen Lucas.	(13)
kopetilun burumakur, goibel, triste	Kopetilun egin zuen Lucasek sukaldeko aterako bidea, harik eta nora zihoan ez zekiela konturatu zen arte.	(91)
kulinario sukaldekoa, janariak egitekoa	Batzuetan eztabaidan aritzen gara, nori gustatzen zaion egurra gehien, berari ala niri. Interes kulinarioak mugitzen du bera.	(36)
kuluxka lotalditxoa	...egunak zeramatzan Anasek kuluxka txikirik egin gabe.	(16)
kurioso txukuna, garbia	Eta Mariak kontatu zien asko maite zutela osaba eta diruduna zela eta kuriooa; pipa erretzen zuela, Angelek bezala...	(135)
kuriosoa izan bitxia izan, handia izan	" Kuriosoa izango zen hilerrirako bidean hiltzea" pentsatu zuen Lucasek: baina ez zeukan goiz hartan hiltzeko gogo larregirik.	(62)
labezomorro intsektu zapala (<i>cucaracha</i>)	Aroztegian sosegu handiagoa zegoen eta ez zen bertan inor hiltzen, ez bada labezomorro urdin batzuk.	(153)
lanturu intziria, hasperena	Biak sartu ziren belar artera eta biek igurtzi zituzten zapatak belar hezeen kontra, lanturu , aiene eta barre lizunak eginez...	(63)
lantzean behin noizik behin, noizean behin	Orduan ikusten nuen aita idazten, sutsuen. Orain ere, lapurtu egiten dizkiot koadernoak, lantzean behin .	(34)
laprast egin laban egin	Halako egun batean, bigarren eskailera-mailan zegoen sugus-papera zapalduta laprast egin eta maletarik fakturatu gabe egin zuen hegan.	(104)
larritu areagotu, txarrago jarri	...bakarrik geratzen zenean arnastetia larritzen zitzaioela, eta imajinazioa izango zela beharbada, baina on handia egiten ziola Marcos ondoan ikusteak.	(133)
lausotuta lainotuta, lanbrotuta	Ahituta zegoen, lanetik, eta lausotuta ikusten zuen gaua.	(68)
leihate leihodun atea	Espaloitik ez zenez leihatea bete-betean ikusten, errepidera atera zen.	(42)
leporatu aurpegiratu, esan	Batzuetan ordu gehiegi ematen ditudala komunean eta irteteen ez dudala azalpenik ematen, horixe leporatzen didate.	(22)
likits zikin, nazkagarri, lohi	Zorua likits zegoen eta hormak harrizkoak ziren, airea bezala.	(92)
lizunduta deskonposiziozko lohia	Handik pasatu ere ez dut egin nahi. Lizunduta omen dago atea.	(22)
lustroso ikusgarriak, deigarria	Oso betile lustrosoak zituen, saltzeko modukoak.	(111)
mailuki 'marrubia	"Limoiak ilberri potoloak dira" esan nion mailukizkoa eskatu nuenean. "Eta mailukiak sastraken elgorria" berak.	(16)
makalik gaixorik, ahul	"Marcos dauka izena, derrigor" pentsatzen zuen Romak eta "inoiz ez da hain berandu etorri" eta "arraroa da" eta " makalik egongo da igual".	(64)
makurrean okerdura	Ziurtasunez hasten zen ibiltzen, bere makurrean .	(86)
malenkoniatsu triste, penatan dagoena	..."ondorio latzak paira ditzake gure planetak", batez ere Siberia inguruan – transiberiar trenbidearen zatirik malenkoniatsuenean , hain zuzen–.	(94)
mandeuli ezpara, euli odol xurgatzailea	...gauza arraroak ikusten zituela han, hala nola, xakean ari diren enterradoreak edo pelikulen argumentuak kontatzen dituzten mandeuliak .	(147)
mendabeltz 'landare mota, (<i>menta</i>)	...trajearen ezkerreko poltsikoan Mariak sartutako mendabeltza eta eskumakoan Lucasek emandako bastoiaren ezpala.	(103)
mesfidati uzkur	...zeruari begiratzen zion, aurreko bi egunengatik mesfidati .	(26)



mingots desatsegina, zapore txarrekoa	Eta gero esaten du goseak hilik egon behar duela sofak, ni bezalako gauza mingots bat irensteko.	(52)
modu aparatosoan katramilatsuan, astrapalatsuan	Baina dortokak eta sugandilak haserretzen diren bezala haserretzen ziren, supituan, orkestra bat bezain modu aparatosoan .	(128)
mutil-mutila benetako mutila, jasekoa	Liburuzaina begi urdin-urdineko mutil-mutila zen.	(45)
ohartu konturatu, jabetu	Baina etxeko egongelara sartu orduko ohartu zen Maria argi hura etxe barruraino sartzen zela eta etxean ere hobeto ikusten zirela gauzak, definituago.	(112)
oilanda oilo gaztea	Eta amak ez luke ulertuko eta esango lidake oilandak baino ez direla horrela ibiltzen, egun osoa etxetik kanpo.	(74)
oka egin botaka egin, bete-beterik egon	Euren postontzia oka egiten ari zen: gutunen laurdenak kanpoan zuen gorputz erdia.	(27)
oldartu bizi erantzun, erasoan bezala	–Nor izutu da? – oldartu zen Maria–. Zu izutu al zara, Lucas?	(30)
ondinokarren oraindino, oraindik	Hori zeukala gogoan Mariak ondinokarren , nola eskatzen zien osabak trenbagoia eta han sartuta egiten zituzten bidaiak, Madrilera-eta, Bagdadera-eta.	(136)
ongarri-meta kaka piloa, gorotz piloa	Eta egurrezko hamazazpigarren balkoiari begira zegoela ongarri-meta bat zapaldu zuen.	(62)
oratu atzeman, gogor eutsi	Eskudelari eskaladore atzamarrez oratuta , gora egin zuen.	(29)
orin orbana, mantxa	Azala orinez gainezka daukate, txokolatez zikindutako alfonbra baten moduan.	(123)
otu bururatu, okurritu	Eta Maria arranguratu zen, eta otu zitzaion hura zela egunean atzekoz aurrera egin zuen laugarren gauza...	(130)
pasatu igaro, iragan	...kaleko giroa eta aroztegiko ate ondotik pasatzen ziren lagunek zerbait esatea eta barre egitea.	(14)
patrika sakela, poltsikoa	Ezkerreko patrikan daukat.	(120)
patu zoria, adurra, suertea	Patuak nahi izan zuen, hala ere, nitxoetan loreak uztetik zetorren neska gazte batek Lucasen birgeria guztia ikustea (patua eskolagabea baita).	(66)
petril ertza, espaloi hegala	Izenik gabeko petril batean jesartzen zen, zorabiatuta.	(87)
pititako atzamarrekin klaskadatxoa	...mahai baten gainean dabilen inurria lurrera botatzen baduzu pititako batez, bizirik jarraituko du...	(115)
pozarren poz-pozik	Eta, pozarren , gure kalkuluak bide onetik doazela ikusten dugunean, ohartzeko gara ez zaigula daukagun lana gustatzen...	(100)
sanskrito antzinako hizkuntza, indoarioa	Eta mezuak zirenez, esanahi bat eduki behar zuten ziur, baina sanskritoz edo beharbada esperantoz, zerbait adi zitekeelako; gutxi, ordea.	(61)
sarriago gehiagotan, maizago	Hemen zegoenetan tailerrera biltzen zen ni baino sarriago .	(21)
sartu orduko sartuaz batera / baino lehen	Giltza sarrailan sartu orduko isildu zen gitarra.	(29)
sastraka sasitza, arantzedun landarea	"Limoiak ilberri potoloak dira" esan nion mailukizkoa eskatu nuenean. "Eta mailukiak sastraken elgorria" berak.	(17)
setiatuta inguratua, eraso	Bere burua setiatuta ikusi zuenean, txokolatea eskaini zion Mariak Lucasi, amore emateko eta hilerrira joateko: txokolatearen sobornoa.	(60)
sikiera behintzat, bederen	Esateko gauza inportanterik izango banu sikiera .	(21)
sits pipia, intsektu egurjalea	—Gure etxeko sitsa daukat gogoan, egunero: don Rodrigo.	(19)



sonanbulu lotan ibiltzen dena	...hiru aukera arrunt zituen (...) ametsetan hastea, berriro esnatzea edo sonanbulu bihurtu eta kantatzea...	(125)
sosegu bakezko atsedena, denkantsua	Baina pentsatzen hasten bazen ez zuen sosegurik hartzen, eta lo egiten bazuen zailtasun handiak izaten zituen pentsatzeko.	(125)
supituan bat-batean	Baina dortokak eta sugandilak haserretzen diren bezala haserretzen ziren, supituan , orkestra bat bezain modu aparatosoan.	(128)
supituko bat-bateko, braustako	Supituko lanuzte horrek espontaneoak zirudien, inprobisatua.	(109)
sutsuen amorratuen, bizi-bizi	Orduan ikusten nuen aita idazten, sutsuen . Orain ere, lapurtu egiten dizkiot koadernoak, lantzean behin.	(34)
tatarrez arrastaka, tarras	...Irlandara joango nintzela, hango belar koltxoi-modukoan tatarrez ibiltzera, edo Pragara edo Belgradora edo albistegietan agertzen den...	(52)
tematu egoscortu, temati jarri	— Edo bestela nik badut tranbia gidatzen duen lagun bat. Deitu hari tematu zen.	(14)
tokatu egokitu, txanda izan	...eta orain abenduko poza tokatzen zitzaion.	(41)
txatxukeria tentelkeria, lelokeria	— Lucas, esan al du zergatik etorri den? — nekatzen hasita zegoen Maria, hainbeste txatxukeria entzunda.	(32)
ubel more kolorekoa	Ikusi genituen hodei laranjak, zuriak, grisak, arrosak, ubelak , gorriak.	(152)
uher lohia, kolore ilunekoa	Hil zenean, ze zero mota eman zioten Abelardori katedrala kakaztu eta gero? Faraioiei baino zero zati txikiago eta uherragoa seguru.	(97)
umel hezea, bustia	Euria ospitale barruan zegoen sartuta; ez euria bera, euriaren kolore umela .	(25)
uzkur mesfidati	Normalean baino hiru segundo gehiago erabilita, begi uzkur bi sartu ziren gelan.	(16)
xalo apala, zintzoa, garbia	— Familiakoak bisitatzera —erantzun zion emakumeak ahots xalo batez.	(66)
xuxurlatu ahapeka esan, isilean esan	— Gaur ez da... — xuxurlatu zion Lucasek gortzen hasia zen arrebari.	(13)
zanpatu indarrez zapaldu	Segundo batzuk eman zituen makurtuta, harik eta sudurraz ordenagailuko ñ letra zanpatzen ari zela konturatu zen arte.	(109)
zapuztu mukertu, kabreatu	Zapuztu egin zen Lucas. Garrantzi handia zuen berarentzat Mariari esandakoak.	(91)
zatar-zatarra oso itsusia, ezatsegina	Eta Carlos, Felipe edo Duncan erregearen iloba zatar-zatarra zen; edo zatarra ez, demagun ez zela fotogenikoa.	(112)
ze zeren, bada (lotura hitza)	...eta orduan ikusi nituen zeppelinak eta lasai hartu nuen arnasa eta pozik, ez nuelako gehiago bilatu behar, ze trenak mugitzen dira baina zubiak ez.	(138)
zepelin ontzi aerostatikoa	Gero zepelin berde bat pintatu zuen, pintzelada horiz; ez nik eskatu niolako, ezpada tren-txartel bat sobran genuelako.	(152)
zirrikitu bitartea	Gitarra baten nota desordenatuak entzuten ari ziren atearen zirrikituetatik .	(29)
ziztrin eskasa, balio gutxikoa	Bera ere nekatuta zegoen, berrogei egun dagoeneko, etxera itzuli gabe, ohe ziztrin hartan...	(19)
zomorro intsektu hegalaria zaratatsua	Marcosek euritakoa zabaldu zuenean, euritako guztiak zomorroak direla pentsatu zuen.	(129)
zurbil kolorgea, zuri-zuria, (<i>pálido</i>)	Lucasek gogoratzen zituen hildako guztiak zaharrak ziren eta zurbilak .	(107)